



Moby Dick

H. Melville

Urteak ziren Moby Dick euskaraz noiz irakurriko irrikan nengoela, eta, egia esan, ez nuen espero nire ametsa betetzea tamaina horretako itzulpen batekin. Argi dago Moby Dicken balioa espresioan, erretorikan eta, batez ere, obra osoa bustitzen duen ikuspegi poetikoan dagoela, itxuraz teknikoagoak edo *gogaikarriagoak* diren atalak barne hartuta (zetazeo mota desberdinei buruzko azalpen gutxi gorabehera teknikoak, eta abar), eta, nola ez, kontaerak transmititzen dituen irudi eta ekintzen intentsitatean.

Obraren egitura ere benetan adimentsua da: oso luzeak izaten ez diren kapituluaren segida, non ederki erretratatzan edo ezagutarazten baita nobelarekin edo nobelaren gaiarekin modu batean edo bestean loturik dagoen alderdi bat edo beste. Nik esango nuke mosaiko handi bat bezalakoa dela, mosaiko ñimiño ugariz osatua, denak batuta edertasun eta konplexutasun handiko paisaia literario bat osatzeraino.

Melvillek beti miresten gaitu: formatu txikiko baina intentsitate handiko kontarekin hasi (Bartebly, Izkribatzailea), nekez ahazten diren narrazioekin jarraitu (Benito Cereno) eta, nola ez, bere maisulan epikoena eta gogoangarriena ahaztu gabe: Moby Dick.

Hasieran, Juan Garziak itzulpena egiteko erabili duen ezohiko prosa ikusita, neurri txiki batean defentsiban-edo jarri nintzen, eta mesfidantza horrek liburuaren benetako hasierara iritsi arte iraun zuen: "Esadazue Ismael. Duela urte batzuk [...]. Une horretan bertan, lehen paragrafoa irakurri bezain laster, bidaia hau harrigarria izango zela jabetu nintzen; gazteagoa banintz, bidaia inizatiko ere izan zitekeela pasa zitzaidan burutik; bestalde, Juan Garziak Juan Rulforen "Pedro Páramo" euskaratzean egin zigun opari liluragarria kontuan izanik, Moby Dick euskarazko bertsio honek zerua ukituko zuela sumatu nuen. Ez nenbilen oker. Eta itzultzailearen estilo "kriptiko" samarra gorabehera diot hori, zenbaitetan zaildu egiten baitu testu edo paragrafo jakin batzuk ulertzea. Baina irakurlearen ahaleginak merezi du. Bestalde, nolabaiteko zailtasuna duten eraikuntza sintaktikoak berriz irakurtzean, horietan ezin sartzea gauza benetan bakana izaten da. Eta, jakina, behin "sartuta", hortik lortzen den plazera, egindako ahaleginarekiko proportzionala da, guztiz.

Liburuaren amaieran, Epilogoan, nolabait ere, badago harridura handia sorrarazi didan esaldi bat, honako hau: [...] *Suertatu zen, ezen, parsiaren desagertzearen ondoren, niri egokitu zitzaidala aduek izendatzea Ahaben*

branka-gizonaren lekua hartzeko, hark bere gain hartu zuenean hutsik geratutako postua [...].

Gaztelaniazko itzulpen batean honela dago itzulita: [...] *Ocurrió que, después de la desaparición del Parsi, yo fui aquel a quien el destino ordenó tomar el lugar del remero de proa de Ahab, cuando éste asumió el puesto vacante [...].*

Ingeleseaz, jatorrizkoan, honela dio: [...] *It so chanced, that after the Parsee's disappearance, I was he whom the Fates ordained to take the place of Ahab's bowsman, when that bowsman assumed the vacant post; [...]*

Uste dut esaldiak euskaraz zentzu handiagoa izango lukeela, adibidez, honela: [...] *Suertatu zen, ezen, Parsiren desagertzearen ondoren, niri egokitu zitzaidala, **adua** **agindutakoari jarraiki**, Ahaben branka-gizonaren lekua hartzea, hark bere gain hartu zuenean hutsik geratutako postua [...].*

Niretzat esaldi hori errata bat baino ez da, despiste bat, zeina, kasualitate hutsez, nobelaren intentsitate handieneko uneetako batean suertatu baita, non eta epilogoan, hain zuzen.

Inork ez dezala pentsa akats-seinalatzaile jasanezin eta pedante horietako bat naizenik, lastoa besteen begian ikusteko irrikaz beti, bere mediokritatea "uxatu" nahian edo. Baina benetan uste dut errata bat dela, "Deabruak" berak asmatutako azpikeria gaizto horietako bat, kontakizunaren unerik delikatuen eta behin betikoenetako batean gertatu behar zuena, hain justu. Nolanahi ere, "anekdota" bat baino ez da, itzultzailea are gehiago handitzen duen eta bere gizatasun osoan erakusten digun anekdota bat, besterik ez.

Eta liburuko azken paragrafoei buruz ari garenez, hitz batzuen esanahia jarriko dizuet jarraian ("gaileta" hitza kenduta, Ipar Euskal Herriko euskaratik maileguan hartuak diruditen hamarren bat termino baino ez).

Euskara	Euskara	Gaztelania
Gaileta	Masta nagusiko gaileta	Galleta del palo mayor
Salbai	Basati, basa	
Meztidura	Hil-oihal, hil-jantzi	
Adu	Mentura, zori, adur, halabehar	
Iraitzi	Jaurti, jaurtiki, bota, egotzi	
Itzulikatu	Biratu, bira egin, jiratu, jira egin	
Artetsu	Burutsu, zorrotz, argi, azkar	
Trabes	Noraezean, noragabean	

Lerra	Irristakor, labain, labainkor...	
Lerra-lerra igaro	Irristakor igaro, labain igaro	

Gustatuko zitzaidakeen Moby Dicken euskarazko irakurketa irrikatua lan karga handiko une batean suertatu izan ez balitzait. Dena den, horrek ez dit irakurketa eragotzi, moteldu besterik ez dit egin, baina nire irakurketa pertsonalaren "kalitatean" aparteko eraginik izan gabe. Eta izatekotan, liburuari buruzko iruzkin honen kalitatean izango luke eragina, ez baitut aukerarik izan Moby Dick irakurri ahala oharrak edo gogoetak sistematikoki jasotzeko.

Nobelaren hiztegi orokor bat osatzea ere gustatuko zitzaidakeen; ez hiztegi sistematiko bat, baina bai glosario orokor bat, arreta berezia jarriz oso ezagunak ez diren eta obran zehar han-hemenka errepikatzen diren terminoetan, batez ere hitz ezezagun horiek esaldi jakin batzuen esanahia oztopatu edo zaildu dezaketenean. Dena den, hiztegiaren kontu hori ez da estuegi hartu behar. Jatorrizko bertsioan eta Moby Dicken gaztelaniazko bertsioan, esaterako, irakurle gehienok inoiz entzun ez ditugun hitz askotxo daude. Hitz teknikoak izaten dira, baleontziekin edo itsas munduarekin zerikusia dutenak. Eta zer? Hori dela-eta espantuz ateratzen al dira beste hizkuntza batzuetako irakurleak...? Ez ba, inola ere ez.

Dena den, Moby Dick ez da irakurraldi bakarreko liburua. Egia esan, hasi naiz liburua berriro irakurtzen, baina ez modu linealean, hau da, hasieratik ez, ausaz baizik. Batzuetan iruditzen zait dozenaka eta dozenaka poemaz osatutako poema-liburu bat dela, poema guztiak gai nagusi beraren inguruan jira-biraka.

Nire burua zuzendu beharra daukat: bai, hasieratik hasi naiz liburua berriro irakurtzen. Baina ez dakit bigarren berrirakurketa lineal hau azkeneraino eramango dudan (ematen du bitakora-egunkari bat idazten ari naizela, Moby Dicken irakurlearen nabigazio-koadernoan).

Dena den, esan daiteke liburua hau ez dela "publiko guztientzat". Ez, ordea, liburua "lizuna" delako (lizuna izan liteke naturaren ikuspegi animalista edo protekzionista batetik); euskara muga jakin batzuetara eramatera ohituta ez dauden irakurleei irakurketa honek planteatuko dizkien zailtasunengatik baizik. Gauza jakina da gure itzultzailerik onenek egindako itzulpenak nekez saltzen direla. Anjel Lertxundiren eta haren moduko euskal idazleen abegikortasun linguistikoa, adibidez, garbi dago Moby Dicken ez dutela topatuko (ezta gure itzulpenik onenetan ere, oro har). Milioi bat hala-holako hitzun dituen herri bat izatea —zentzu horretan— nekez gaintu daitekeen handicap moduko bat dela pentsatzen dut (ezinezko erronkak ederrenak badira ere).

Ez dakit euskaraz ba ote dagoen itzulpen eskolarik edo korronterik. Beharbada, gehiegizkoa da horrelakorik planteatzea. Auskalo. Baina, itzulpenak

planteatzeko orduan, aniztasun handia dagoela iruditzen zait. Bai, horretaz ez dut dudarik. Alde batetik, Fernando Reyren, Xabier Olarraren eta Koro Navarroken "eskola" dugu (icebergaren hiru punta garrantzitsu aipatzearen, askoz gehiago badira ere; areago, "dizipulu" gehien dituen eskola dela esango nuke). Gero, Patxi Zubizarretaren eskola "preziosista" dago, hark egindako zenbait itzulpen (Mila eta bat gauen gauak, esaterako) liluratuta eta aho zabalik utzi gaituztenak. Eta hirugarrenik, Juan Garziaren "eskola" edo "estiloa" daukagu, imitatzen oso zaila eta eskola sortzeko korapilatsu samarra, sakontasun handiko sen linguistikoa horretan murgil egitea ez baitago euskaldun guztion esku. Eta, estilo edo eskola horien guztien artean, nor bere talaiatik eta bere ahalmenetik egin dezakeen ekarpena legoke. Juan Garziari buruz azken ohar bat egingo nuke: eskulturak lantzeko lehengai gisa burdinaren aldeko hautua egin duten eskultoreak ekartzen dizkirate gogora Juan Garziaren itzulpenek; garbiago esanda: Juan Garziaren artelanek euskal eskultore handien artelan "burdintsu" eta "herdoiltsu" horiekin alderatzen ditut, Txillidaren artelanekin kasu. Baina desabantaila batekin, Juan Garziak ez baitu erabiltzen espresibide unibertsal bat (pinturan, eskulturan edo musikan gertatzen den bezala), guztiz kontrakoa baizik: komunikazio arazo potoloak arrastatu dituen, arrastatzen dituen eta arrastatuko dituen hizkuntza minoritario bat erabiltzen du. Nolanahi ere, eta olerkariak esan zuen bezala (gaztelaniaz esan ere), "ibilian egiten da bidea".

Puntu honetara iritsita, hurrengo gogoeta edo, hobeto esanda, hurrengo galdera hau da: "noizko Homeroren Odisea euskarazko itzulpen eder batean?". Orain arte, euskaraz irakurri nahi nituen bi obra handi izan ditut behin eta berriro gogoan, literatura unibertsaleko bi klasiko. Bata Moby Dick zen, eta bestea Homeroren Odisea. Itzela izango litzateke Odisea irakurtzea Anjel Lertxundik eta Juan Kruz Igerabidek elkarrekin egindako bertsio batean, adibidez (Apuleioren Urrezko Astoa, Literatura Unibertsala bildumarako egin zuten itzulpena alegia, euskarazko itzulpenen urrezko olinpoetara igaro da, nahiz eta euskal irakurle —ez oso zorrotz— batzuei beharbada oharkabean igaro).

Ikuspegi animalista, kontserbazionista eta ekologista batetik ere hitz egin genezake Moby Dicki buruz. Urte asko igaro dira Melvillek obra hau idatzi zuenetik, zalantzarik gabe. Beste garai batzuk ziren. Euskaldunok ere badugu balea-tradizioa, gure iraganaren eta gure historiaren parte dena, gustatu ala ez. Garaiak aldatu egiten dira, baita gizarteak ere, eta badirudi gauza batzuek hobera egiten dutela; adibidez, animalien aniztasunarekiko eta naturarekiko errespetuak, oro har. Mendeetan zehar, gizateriak naturarekiko duen jaidura basatiaren adibide ugari ditugu. Gaur egun, gure gizateria hau ez da lehen baino askoz hobea; hala ere, zorionez, gai horiekiko kontzientziario handiagoa dago. Eta, hain zuzen ere, Palestinako, Ukrainiako eta han-hemengo gerra krudelak ikusita, baten batek bere buruari galdetuko dio ea kontzientziario hori

ez ote den handiagoa animaliekiko pertsonetikiko baino. Eta hor uzten dut, ez baitut Moby Dick objektu edota edarnio ideologiko bihurtu nahi.

Dublinen James Joyceren estatua bat dagoen bezala, hemen, Euskal Herrian, agian Donostiako Alderdi Eder lorategietan, Juan Garziaren estatua bat izan beharko genuke, egunen batean. Hori bai, ez dugu presarik, beste arrazoi batzuen artean, estatuak hil ondoren jarri ohi direlako, eta, zorionez, Juan Garzia onik eta osorik dago oraindik, eta ozeano sakonetik aterata dirudien bere euskara horrekin ziur gure belarriak eta zentzumenak gozarazten jarraituko duela, urte luzez jarraitu ere.

Moby Dickekin izan dudana esperientzia pertsonala abiapuntutzat hartuta, iruzkin askoz zabalago bat idazteko ideia benetan erakargarria egiten zait, Moby Dick ideia eta inspirazio iturri zinez oparoa baita. Dena den, esan bezala, Moby Dick irakurtzen hasi bezain laster, lanean jo eta ke aritu behar izan dudana etapa bat heldu da eta nekez lortu dut, lanean aritzeaz gain, beste ezertan aritzea. Bestalde, Moby Dick nobelako kapituluak berrirakurtzen jarraitzen badut ere, liburua aldi batez apalategian utzi eta beste irakurketa batzuei heltzeko gogoia ere badut... Moby Dick zertxobait obsesiboa da; beharbada, azkenean, Ahab kapitainaren obsesio gaiztoa transmititzen dio irakurleari, eta horregatik, agian, ez letorkidake gaizki eleberriaren eta nire artean milia batzuetako distantzia jartzea...

Moby Dick eleberrian katigaturik geratu garen guztiok Pequod ontziko eskifaia-kide bihurtu ez ote garen galdetzen diot neure buruari. Beharbada, marinelen bizimodua ez ezik, irakurleen bizimodua ere izan beharko genuke aipagai, badaude-eta halako paralelismo batzuk...

Irakurri ahala etorri zaizkidan beste ideia batzuk, garatzea mereziko luketenak:

* Zurrusta Ostatua: Ez al dago giro homosexual jakin bat eszena honetan? Edo, eszena dibertigarri bat baino ez da, aparteko esangura erotikorik ez duena? Nire ustez, bietara interpreta daiteke.

* Ismaelen espiritu gazte eta abenturazale maitagarria, liburuaren hasieratik bertatik agerian jartzen dena.

* Ismael da liburuaren benetako protagonista, Ahab eta balea zuria bezain protagonista (protagonistagoa ez bada); izan ere, ez da mugatzen narrazio bat egitera; aitzitik, pertsonaiak, gertaerak eta baleontziarekin zerikusia duen guztia (eskifaia, jarduera, helburua) mistifikatu eta mitifikatu egiten du. Bera da marinela, narraziogilea, Ahab kapitaina, itsaso maitagarri eta beldurgarria, balea zuria ere bai... Bai, Ismael bera dugu Moby Dick (eta Moby Dick, Melville bera dugu...).

* Zeroi = cachalote

* Gomorra (26. orria). Homosexualitateari buruzko beste erreferentzia bat...? Beharbada. Dena den, liburuan espiritu "biblikoa" nahiko presente dago, eta, Gomorra giro bibliko horren parte da, besterik gabe. Zenbat buru, hainbat aburu (beti bezala).

* Queequeg. Pertsonaia liluragarri honen garrantzia lausotu egiten da, nolabait, Pequoden ontziratuta eta gero.

* Zurrusta Ostatua: Peter Coffin (coffin = hilkutxa, zerraldo) (26. orr.) Xehetasun premonitorio itzela!

* Amula = amura

* Zurrusta Ostatuko horma batetik zintzilik dagoen margolan baten deskribapena: beste xehetasun premonitorio itzel bat!

* borra = porra, maza // aiztaga = lantza // tostarteko = eskafaia-kidea, marinela

* Ez dut uste Moby Dicki buruzko iruzkinak inoiz agor daitezkeenik. Alde horretatik, irakurketa irekia da, eta beti ekarriko ditu berekin ideia, iruzkin eta zalantza berriak, etab. (Liburu klasiko peto-petoa)

* "Kolosala izango da" dio Sarrionandiaren liburu baten izenburuak. Eta horixe da gure Moby Dick hau euskaraz, orainaldian baina: "Kolosala da".

* Moby Dick nobelari buruz hitz egin dutenek askotan aipatzen dute "sinbolismo" hitza. Ez dakit kasualitatea den ala ez, baina Artean badago "sinbolismo" deritzon korrante historiko bat, XIX. mende erdialdearen bukaeran Frantzia bereziki sortua eta zabaldua. Melvilleren obra hau, berriz, 1851. urtean argitaratu zen, hau da, XIX. mendearen erdialdean. Interesgarria izango litzateke egon litezkeen bien arteko loturak edo paralelismoak aztertzea eta ikertzea...

* Moby Dick irakurri eta gero, hasten zara beste liburu batzuk irakurtzen eta "jaisten" sentitzen zara, mailaz jaisten...

(jarraituko du....)